

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT


- Zer berri hedatu da oihanean?
- Zer egin dute errege berriaren hautatzeko?
- Zergatik txepetxa hautatu dute erregetzat?
- Txepetxaren jokamoldeaz zer diozu?
- Bietarik bat hautatzekotan, zuk zein`hauta zenezake?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Taula honetan gure eskualdeetako xori batzuk agertzen dira. Zein dira irakurgaietan aipu?

murruxoria	papogorria	sagar-txoria	huntza
erresiñola	txepetxa	negu-xoria	kaskabeltza
ildoxoria	arranoa	pika	zozoa

► Hona xori baten argazkia eta haren ezaugarrien fitxa. Fitxa irakur eta xoriaren izena idatz. Hiztegien eta idazlanen laguntzaz balia zaitez.



Gorputz-luzera : 18 cm.

Gorputz arina, hankak franko luzeak eta luma-dia xuri-beltza. Lurrean ibiltzen delarik bere buztan luzea mugitzen du goiti eta beheiti. Habia teilatu eta paretetako ziloetan egiten du. Euskal Herri guzian aurki daiteke. Buztanikara zuria ere deitzen da.

► Lehen zutabean izenak dira, bigarreanean adjektiboak. Erranaldi laburrak idatz itzazu izena eta doakion adjektiboa elkarlotuz.

txepetxa	mehea
arranoa	abila
belea	handia
pika	beltza